


HATOR NESKA-MUTIL ETXERA



HATOR HATOR (HERRIKOIA)

HATOR **NESKA-MUTIL** ETXERA
GAZTAINA ZIMELAK JATERA.
GABON GAUA OSPATUTZEKO
AITAREN TA AMAREN ONDOAN.
IKUSIKO DEK AITA BARREZKA.
AMA BE POZ ATSEGINEZ.

ERAGIN EIOZU AURREKO DANBOLINARI
GAZTAINAK ERRE ARTIAN
GAZTAINAK ERRE ARTIAN
TXIPLI TXAPLA PUN...
GABON GAUA POZIK
IGARO DAIGUN.

EGUEN ZURI (HERRIKOIA)

EGUEN ZURIKO EGUNA
JAINKOAK BERAK EGINA
ESKOLA-UMEAK IBILTZEKO
LIMOSNA ON BATEN BILA.

SAN KASIANO OBISPUA
ESKOLA MAISU JAKITUNA,
JESUKRISTOREN FEDEAGATIK
ODOLA EMON EBANA
ETXEKO ANDRA MONDRONGO
HIK EZ DON ASKO EMONGO
HIK EMOTUNAN LIMOSNIAGAZ
ETXUNAU ASKO EDANGO.

EMOIXU EMONGO BOADOZU
BESTELAN EZETZ ESAIZU
ATE ONDOAN HAIXE HARTZEKO.
AMAK EZ GAITU BIALDU.

HAIKA MUTIL (HERRIKOIA)

HAIKA **GAZTE**. JEIKI HADI
ARGIA DEN MIRA HADI.
-BAI NAUSIA, ARGIA DA
GURE OILARRA KANPOAN DA.

HAIKA **GAZTE**. JEIKI HADI
HORTXET ZER DEN MIRA HADI.
-BAI NAUSIA, HAIZEA DA,
GURE LEIHOA IREKI DA.

HAIKA **GAZTE**. JEIKI HADI
ZER OINON DEN MIRA HADI.
-BAI NAUSIA, EGIA DA,
MUTILTXO HAU UNATU DA.

HAIKA **GAZTE**. JEIKI HADI
EURIA DEN MIRA HADI.
-BAI NAUSIA, EURIA DA
GURE ORRA BUSTIA DA

HAIKA **GAZTE**. JEIKI HADI
KANPOAN ZER DEN MIRA HADI.
-BAI NAUSIA, ELURRA DA,
LURRA TXURIZ ESTALI DA.

HAIKA **GAZTE**. JEIKI HADI
SURIK BADEN MIRA HADI.
-BAI NAUSIA, SUA BADA
GURE GATUA BEROA DA.

HAIKA **GAZTE**. JEIKI HADI
UREAN ZER DEN MIRA HADI.
-BAI NAUSIA, ARDIA DA
ASPALDIAN ITOA DA.

LEPOAN HARTU

MUSIKA: JACK JUDGEY ETA HARRY WILLIAMS

HITZAK: TELESFORO MONZON

GAZTE BAT LURREN AURKITU DUGU
LORE GORRIZ BETERIK KOLKOA
BURDINEN ARTETIK IHESI DATOR
EUSKAL GAZTERIAREN OIHUA.

GAZTEAK ESKUAK ELKAR GURUTZA
EKIN TA BULTZA DENAK BATERA
BIDEAN **LAGUNA** ERORTZEN **BADA**
LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA

TRALARA TRALARALALA TRALARA
LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA

EZ DUGU BELDURRIK, EZ DUGU LOTSARIK
NOR GERAN, ZER GERAN AITORTZEKO.

EZ GAITUK LAPURRAK, EZ ETA ZAKURRAK
KATAIAZ LOTURIK IBILITZEKO.

AUSARTAK BAGERA, JOZAGUN AURRERA
GURE HERRIAREN JABE EGIN ARTE
ASKATASUNAREN HEGAL AZPIAN
KABIA EGITEN OHITUAK GARE
IBILTZEN ASPALDI IKASIA DUGU
OTSOAK ESKUTIK HARTU GABE.

TRALARA.....

ARROTZEK EZPATAZ HIL NAHI BANAUTE
ISILDUKO GAITUZTELAKOAN,
ZUTITU TA EUSKARAZ MINTZATUKO NAIZ
NERE HILTZAILEAREN AURREAN.

LAGUNA ETZAZU NIGARRIK EGIN
ERORTZEN BANAIZ GAU ILUNEAN
IZAR BERRI BAT PIZTUTZERA NOA
EUSKAL HERRIKO ZERU GAINEAN.

AITA SEMEAK

MUSIKA: NATXO DE FELIPE

HITZAK: XABIER ZARATE

AITA-SEMEAK TABERNAN DAUDE
AMA-ALABAK JOKOAN,
AMA-ALABAK TABERNAN DAUDE,
AITA-SEMEAK JOKOAN.

BERRIZ IKUSI BEHARKO DUGU
BEHI GIZENA AUZOAN,
BERRIRO ERE EZ DA FALTAKO
TRAPU ZAHARRIK KAKOAN

ETA LAPURREK OHOSTU DUTE
GUK GENDUKANA ETXEAN
ETA GU GAUDE ERDI BILUZIK

BETI INOREN MENPEAN
HONDAMENDIA GERTATU ZAIGU
GEURE ETXEAN HORRELA,
GUZTIOK BIZI NAHI DUGU BAINA
NOLA BIZIKO BESTELA?

GEUREA DUGU ERRU GUZTIA
GEUREA DUGU OSOA,
EZ INORI ERRUA BOTA
EUSKAL HERRIA HILTZEAN.

BAINA GAZTEA NAIZ ETA DAUKAT
ETORKIZUNA ESKUAN,
EZ ZAIGU HILKO EUSKAL HERRIA
NI BIZI NAIZEN ARTEAN.

AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA

AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA
NAHI DOGU ZABALDU
MUNDUAREN AURREAN
AUSARKI AZALDU.
BALDIN GURE ZAINETAN
ODOLIK BADOGU
EUSKALDUNOK EUSKARAZ
HITZ EGIN BEHAR DOGU

ZEIN HIZKUNTZA EDERRA
EUSKERA GURIA
INUN EZ DOT AURKITZEN
BESTE BAT HOBIA
USAI GOXODUN HIZKUNTZ
TXUKUN TA GARBIA,
BIRAORIKAN EZ DAUAN
HIZKETA GARBIA

MUSIKA: URRETXINDORRAK
HITZAK: Z. ANDONEGI

GORA EUSKARA MAITEA
ZORAGARRIENA
EUSKALDUNEN ARTEAN
MAITAGARRIENA.
MUNDUAN SORTU ZANIK
HIZKUNTZIK ZAHARRENA.
GORA TA GORA EUSKALDUNAK
ETA GURE EUSKARA.

KOPLAK (HERRIKOIA)

MENDI ALTUEN EDURRE
BOTA SUTERA EGURRE
NOIZ ARTE EUKIKO DOGU
MUTIL ZANTARREN BELDURRE?

ORAINGO NESKATILAK
GONA MOTXAREKIN
KALEAN IBILTZEN DIRA
NAHI DUTENAREKIN.

